

FUNTSEZKO ELKARTEAK



Gure proiektua sortzeko, hainbat material ezinbestekoak dira. Gehienak [Alibaba](#) webgunen erosiko ditugu, izan ere, kalitate-prezioa oso egokia dela iruditzen zaigu. Gainera, erositako produktu kopurua geroz eta handiagoa izan, prezioan egindako deskontua ere handiagoa izango da. Ildo beretik jarraituz, [Leroy Merlin](#) eta [DHGate](#) enpresei beste hainbeste produktu erosiko dizkiegu, gure beharrak (material jakin batzuk) hoberen asetzen dituztenak direlako, baita online erosteko aukera ematen dutelako ere.

Garraioari dagokionez, [Seur](#) enpresarekin kolaborazioa egitea erabaki dugu, ez bakarrik eskaintzen duen zerbitzua azkarra eta nazio mailakoa delako, baizik eta CO2-a murrizteko ibilbide estrategikoak egiten dituelako ere. Horrenbestez, aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzen du, entregatutako pakete bakoitzeko 0,69kg CO2 murrizten baitira. Halaber, enpresa honetan kontratatutako energia elektrikoaren % 90 baino gehiago berriztagarria da.

Muntaketaren aldetik, [Star of Service](#) enpresarekin lan egitea erabaki dugu. Alde batetik, Espainia osoan lan egiten dutelako eta bestetik, bertako langileekin harremanetan jartzea oso erraza delako. Esaterako, Star of Service webgunean soilik posta kodea eta beharrak (leihoen tamaina, kopurua, mota, materiala, kokapena, hauek aldatu nahi diren edo ez, etab.) zehaztu behar dira. Ondoren, gure Balder Plaka jartzeko prest dauden inguruko arotzen kontaktua

agertuko litzateke, bezeroak hauekin hitz egiteko eta esandako beharrak adierazi eta zerbitzua adosteko.

Beraz, eragile hauen jarduera gure enpresan ezinbestekoa da, gure proiektua aurrera eramateko eta arrakasta izateko gure bezeroen gogobetetasuna bermatuz.